

ERDIALDEKO BILERA (Untzagako Jubilatutxoa, 2012/11/27)

Oinezkoak espaloietatik pasatzeko dagoen araudia betearaztea eskatu dute, beraien iritziz, fruta-dendek araudia bete arren tabernek ez dutelako betetzen	Hirigintza	Eskutitzak bidali dira okupazioa eska dezaten eta Udaltzaingoa adi dago, Bide publikoa mahai eta aulkiekin, saltzeko produktuekin edo elementu lagungarriekin okupatu eta erabiltzeari buruzko udal-ordenantza betetzen ez dutenei isunak jarritz.
Barrakek eta kontzertuek ateratzen duten zaratarengatik sartu dute kexa	Kultura	Kulturatik tramititzen da barraken instalazioa eta emisio bolumena mugatzen da.
Ego erreka Erogain kaleko 8. eraikinaren parean pasatzerakoan sortzen duen zarata ekiditeko modua aztertzea eskatu dute. Leku horretan dagoen ur-saltoa aldatzeko eskatu dute.	Obrak	Ur-saltoa beharrezkoa da, altuera aldatuz gero ere zarata egoten jarraituko luke..
Trenak San Andres pasealekutik igarotzerakoan ateratzen duen zarata murrizteko modua aztertzea eskatu dute	Obrak	Eskari hau ETSri jakinarazi zaio eta kontuan izango da Ardantza eta Amaña arteko bikoizketa lanak egiterako orduan
Erreka Erogain kaletik pasatzerakoan usain txarra izaten duela eta kexa sartu dute (erreka bistan dagoen lekuan).	Obrak	Ermua eta Ibur Erreka artean kolektorearen obrak egiten ari dira, dagoen sarearekin konektatzeko eta honenbestez egoera hobetzeko.
Taberna batetik datorren zarata salatzeke derrigorrez norbere izena eman behar den galdetu dute	Udaltzaingoa	Salaketa bat ipintzeko salatzailleak nahitaez eman behar ditu bere datuak.
Untzagako edukiontzietatik kanpo kartoiak daudela salatu dute	Udaltzaingoa	Ingurua zaindu da eta salaketak egin dira, egoera nabarmen hobetu delarik, nahiz eta noizean behin kartoiak egoten diren lurpeko edukiontziek behar bezala funtzionatzen ez dutelako..
Ilara bitan aparkatzeko araudia sortzea eskatu dute	Udaltzaingoa	Badago horren gaineko Arandia. Trafiko Legeak debekua ezartzen du.

ERDIALDEKO BILERA (Untzagako Jubilatuta Etxea, 2012/11/27)

Untzaga plazako 5. pegoraraino (Untzaga dorrea) Eibarko Txikito kalera ematen duen aldetik ibilgailuak pasatzen uzteko erraztasunak ematea eskatu dute	Udaltzaingoa	Zamalanak noizbehinkakoak eta arrazoituak badira, Udaltzaingoa ez du eragozpenik jartzen zamalanak egiteko beharra dutenei pasatzen uzteko.
Bidebarrieta kaleko 1ean oinezkoen pasabide berri bat eskatu dute	Udaltzaingoa	Inguruetan zebrabideak daude eta Zuloagatarrenetik sarbidea dagoenez puntu horretan zebrabide bat ipintzea arriskutsua litzateke.
Errebal kaleko 9. eraikinaren ostean dagoen parkean umeak futboleko jolasten dutela eta kexa sartu dute	Udaltzaingoa	Udaltzaingoa bertan agertzen da parkean umeak edo gazteak traba egiten daudela jakiten duenean, eta astebruetatan botiloaren asuntua zaintzen da.
Fermin Galbeton kaleko 7an eta Eibarko Txikito kalean, gauzez, pixa, oka eta kristal apurtuak egoten direla salatu dute	Zerbitzuak	Abisua pasatzen zaie bai Mankomunitateari bai Udaltzaingoari. Mankomunitateak mangera domeka goizero pasatzen dela esaten du. Udaltzaingoa, garbiketa publikoari buruzko udal-ordenantza betearazten du, zeinetan behar fisiologikoak bide publikoan asetzea arau-hauste oso larri moduan jasota dagoen, 450 eurorainoko isunak jar daitezkeelarik.
Aldatze, Txaltxa Zelai eta Eibarko Txikito kaleetan txakur kakak ikusten direla salatu dute	Zerbitzuak	Mankomunitateari abisua pasatzen zaio. Gainera, Udaltzaingoa txakur kayak jasotzen ez dituzten jabeei isunak jartzeko agindua du.
Asteroko azokak gaur egun duen kokapenagatik kexatu egiten dira (Eibarko Txikito) eta Txaltxa zelaiko parkearen aldean jartzea eskatu dute, Juan Gisasola kalearen ondoan.	Zerbitzuak	Erdialdeko azoka Errebalgo aparkalekuan egiten da 2013ko martxotik.
Azitaingo industrialdean dagoen Alzubarren frontoia hobeto zaintzea eskatu dute; han, itoginak daudela salatu dute	Zerbitzuak	Brigadak itoginen arazoa konpontzen du 2013ko maiatzean. .
Alzubarren frontoiak argia erabiltzen denean baino izan ez dezan, fitxa edo sentsore bidezko argiteria-sistema jartzea eskatu dute	Zerbitzuak	Frontoiaren argiteria aldatzeko beharrik ez dagoenaren akordioa hartzen da. Gaur regun erloju astronomikoa dauka.

ERDIALDEKO BILERA (Untzagako Jubilatu Etxea, 2012/11/27)

<p>Errebal kaleko 6. eta 8. pegoretan usain txarra dagoela eta kexatu egin dira auzokoak, estolderiaren arazoa izan daitekeela adierazita.</p>	<p>Zerbitzuak</p>	<p>Usain txarrak ateratzea ekiditeko, estolda-zulo sifonikoak ipiniko dira urtea amaitu aurretik, zeintzuen tapak Brigadako langileak fabrikatzen ari diren.</p>
<p>Untzaga dorrearen ostean dagoen umeen jolaslekutik gertu dagoen hesia itxiagoa izatea eskatu dute, umeren bat han sartu eta jausi ez dadin. Ardantzako tren-geltoki gainean dagoen pasealekuaren hesiak ere aipatu dituzte</p>	<p>Zerbitzuak</p>	<p>Lan-agindua egiten da erortzeko arriskua dagoen ikusteko, hala izatekotan beharrezko diren neurriak hartzeko asmoz. Egindako neurketak araubideak esaten duen mugen barruan daude.</p>